# Bestelako Xedapenak

## GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

**2797**

EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 11koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena. Honen bitartez, Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat laguntzak deitzen dira, 2011ko ekitaldian erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko.

Euskal gizarteak elkartasun ekimen ugari sortzen ditu, nazioarte mailan, giza garapen iraunkorra sustatzeko. Ekimen horien jatorria, sarri, gazteak dira. Ikuspegi anitzekoak dira egungo gazteak, eta ez dute uste indarrean dugun mundu-ordena ezin alda daitekeenik. Ildo horretan egintza-modu zenbait jartzen dituzte abian, erakundeen aldetik behar besteko erantzunik jasotzen ohi ez dutenak. Programa honen helburua, errealitate horretatik abiaturik, mundu zuzenago baterako oinarriak ezartzen laguntza eskaintzea da. Nazio Batuen sistemako erakunde eta agentzia zenbaitek garatzen duten lan handia bultzatzen dute. Euskal gizartea sentibera da, eta bere izaerak erraz bereganatzen ditu Erakunde horien printzipioak, helburuak eta metodoak giza garapen iraunkorrean, giza baliabideen babesean, zigorgabetasunaren aurkako borrokan eta gobernagarritasun demokratikoa sustatzean.

Lanbide gaitasun egokia duten EAEko gazte asko programa horretan txertatuz bideratu da laguntza hori azken urte hauetan, hain zuzen ere, Nazio Batuen sistemari atxikitako nazioarteko erakundeen baitan. Erakunde horiek parte hartzeak eta lankidetzarako nazioarte mailako sistema deszentralizatzeko prozesuak aukera ematen dute helburu bera duten agenteak koordinatzeko. Alde horretatik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak uste du lankidetzarako agenteen arteko koordinazioa beharrezkoa dela indarrak metatzeko.

Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeei eta horiei atxikitako pertsona juridikoei esleitzen zaizkien laguntzak arautzen dituen otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuaren 2. artikuluak xedatzen duenez, laguntzen deialdia urtero egingo da, garapen-lankidetzaren arloan eskumena duen sailburuaren aginduz, eta beti adierazi beharko da deialdi horretarako izendatutako zenbateko guztizkoa, hautagaitza bakoitzari dagokion oinarrizko dotazioaren gehienezko zenbatekoa eta lu-

# Otras Disposiciones

## AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

**2797**

RESOLUCIÓN de 11 de mayo de 2011, del Secretario General de la Presidencia, por la que se convocan, para el presente año 2011, ayudas a Organismos Internacionales del sistema de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a ellos, para becar a las personas cooperantes voluntarias que participen en proyectos de desarrollo de dichos Organismos Internacionales en países empobrecidos.

La sociedad vasca genera numerosas iniciativas de solidaridad internacional para la promoción del desarrollo humano y sostenible. Dichas iniciativas surgen a menudo de la mano de su juventud, que desde posiciones diversas no considera el actual orden mundial como el único posible, promoviendo diversas formas de acción que no siempre encuentran el eco de las instituciones. Partiendo de esa realidad, el objetivo del presente programa es contribuir al establecimiento de las bases para un mundo más justo, mediante el apoyo a la importante labor que desarrollan diversas organismos y agencias del sistema de las Naciones Unidas, cuyos principios, objetivos y métodos de trabajo en el ámbito del desarrollo humano y sostenible, la protección de los derechos humanos y la lucha contra la impunidad y la promoción de la gobernabilidad democrática, conectan con la sensibilidad de la sociedad vasca.

Durante los últimos años ese apoyo ha tomado forma, en el marco del presente programa, en la incorporación de un importante número de jóvenes de Euskadi con la capacitación profesional adecuada, en el seno de diferentes organismos internacionales vinculados al sistema de Naciones Unidas. La colaboración de estos organismos, así como el proceso de descentralización del sistema internacional de cooperación, facilita la coordinación de distintos agentes que persiguen un mismo objetivo. En este sentido, la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo entiende que la coordinación entre los agentes de cooperación es necesaria para sumar esfuerzos.

El Decreto 22/2007, de 13 de febrero, por el que se regulan las ayudas a Organismos Internacionales del sistema de las Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a ellos, para becar a los/las cooperantes voluntarios/as que participen en proyectos de desarrollo de dichos Organismos Internacionales en países empobrecidos, establece en su artículo 2 que la convocatoria de ayudas será realizada anualmente, mediante Orden del/de la Consejero/a competente

zapenetarako izendatutako zenbatekoa. Hautagaitzak aukeratzeko irizpide bakoitzak baloratuko dituen alderdiak zehaztu beharko ditu aginduak, horien ponderazioa, eskabideak aurkezteko lekua eta epea eta eskabide-eredua.

Deialdia egiteko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta abiarazi ondoren (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legea; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua; eta Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duen azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua), eta ikusirik Jaurlaritzaren Lehendakaritzari esleitu zaiola garapenerako lankidetzaren arloa, eta lehendakaritza horri atxiki zaiola Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia izeneko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa (EAEko administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua bigarren aldiz aldatzeko Lehendakariaren urtarrilaren 18ko 6/2011 Dekretuaren lehenengo eta bigarren artikuluak), Lehendakaritzako idazkari nagusiak egin behar du diru-laguntzen deialdi hau.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak erabakiko du nola kudeatu aipatutako laguntzak eta arlo honetan eman beharko diren ebazpenak. Horretarako, bi lege-xedapen hauek beteko ditu: batetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikulua, eta bestetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikulua.

Azkenik, adierazi behar da deialdi honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren oniritzia jaso zuela 2011ko otsailaren 18an egindako bilkuran.

Horren ondorioz, hau

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeentzako eta erakunde horiei atxikitako pertsona juridikoentzako laguntzetarako 2011ko ekitaldiko deialdia egitea da ebazpen honen helburua, Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeei eta erakunde horiei atxikitako pertsona juridikoei ematen zaizkien

en materia de cooperación para el desarrollo, debiendo señalarse, en todo caso, el importe total destinado a la convocatoria, el importe máximo de la dotación básica de cada candidatura y el importe destinado a las prórrogas. Asimismo, deberá concretar los aspectos que se valorarán en cada uno de los criterios de selección de las candidaturas y su ponderación, así como el lugar y plazo de presentación de solicitudes y modelo de solicitud.

No obstante, por lo que se refiere a la competencia para realizar la convocatoria, tras la creación, regulación y entrada en funcionamiento de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo (Ley 5/2008, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo; Decreto 95/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba su Reglamento de Organización y Funcionamiento; y Decreto 310/2010, de 23 de noviembre, por el que se regula el inicio de actividades de la Agencia), así como tras la asignación a la Presidencia del Gobierno del área de actuación consistente en la cooperación al desarrollo y la adscripción a dicha Presidencia del ente público de derecho privado Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo (Artículos primero y segundo del Decreto 6/2011, de 18 de enero del Lehendakari, de segunda modificación del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la CAPV y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos), corresponde realizar esta convocatoria de subvenciones al Secretario General de la Presidencia.

En cuanto a la gestión de las citadas ayudas y resoluciones que hayan de dictarse a tal efecto, la competencia corresponde a la Directora de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo (Artículo 11.2 de la Ley 5/2008, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo; y artículo 11.1 del Decreto 95/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo).

Por último, cabe señalar que la presente convocatoria recibió el visto bueno del Consejo Rector de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, en sesión celebrada el 18 de febrero de 2011.

En su virtud,

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Objeto.

El objeto de la presente Resolución es convocar para el presente ejercicio 2011 las ayudas a los Organismos Internacionales de Naciones Unidas y a las personas jurídicas vinculadas a ellos, de conformidad con el Decreto 22/2007, de 13 de febrero, por el que se regulan las ayudas a Organismos Internacionales

laguntzak arautzen dituen otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuak xedatutakoari jarraiki. Laguntza horiek lankide boluntarioei bekak emateko dira nazioarteko erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte har dezaten.

***2. artikulua.–*** Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honetako laguntzak finantzatzeko ezarritako dotazio ekonomikoa 847.500 eurokoa izango da.

2.– Luzapenetara zuzendutako zenbatekoa 678.000 eurokoa izango da.

Luzapenetarako eskabideen kopurua dela-eta aipatu zenbatekoa agortzen bada, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak horren berri eman beharko du, luzapen gehiago ez daitezen onartu.

3.– Diru-kopuru horiek –deialdiarena eta luzapenena– aldatu ahal izango dira, eskatutako laguntzen kopuru osoa kontuan izanda, baldin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak beste laguntza-programa batzuk burutu ondoren aurrekontuko diru-kopururik ahitu gabe geratzen bada, eta betiere diru-laguntzei buruz ebazpena eman aurretik. Hori gertatuz gero, EHAAn argitaratutako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen bidez jakinaraziko da.

Edonola ere, luzapenei zuzendutako zenbatekoak ezingo du laguntza berriei zuzendutako zenbateko osoaren % 80a gainditu.

***3. artikulua.–*** Diru-laguntza.

1.– Hautagaitza bakoitzaren oinarrizko diru-hornidura 15.000 eurokoa izango da.

2.– Herrialde hartzaileetako bizi-mailagatiko osagarria Garapenerako Nazio Batuen Programaren (GNBP) 2011ko otsaileko bidaisari-eskala kontuan harturik kalkulatuko da. Informazio hori www.elankidetza.euskadi.net Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren web orrian egongo da eta, horrez gain, Agentzia horretan eskatzen dutenei ere eskuratuko zaie informazioa. Eskala horretako baremorik altuenari dagokion jomuga duten hautagaitzetarako, osagarriaren zenbatekoa gehienezkoa izango da, hau da, 750 eurokoa. Gainerako jomugak kalkulatzeko, baremo bakoitza eta gehienezko kopuruari dagokion zati proportzionala hartuko dira kontuan; konpentsazioa emateko gehienezko muga Bogota (Kolonbia) edo Islamabad (Pakistan) hiriei dagokiena izango da.

3.– Lankide boluntarioak agentzia multilateralen eremuan jasotako prestakuntza espezifikoak –erakunde eskatzaileak antolatua edo emana denak– eragindako gastuak gehienez ere hautagaitza bakoitzari emandako laguntzaren oinarrizko zenbatekoaren % 2 izango dira (300 euro). Era berean, erakunde eskatzaileek hautagaitzen aurretiazko hautaketa eta beken jarraipena egiteko administrazio-lanak kudeatzen

del sistema de las Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a ellos, para becar a los/las cooperantes voluntarios/as que participen en proyectos de desarrollo de dichos Organismos Internacionales en países empobrecidos.

***Artículo 2.–*** Recursos económicos.

1.– El importe global de la dotación económica destinada a la presente convocatoria será de 847.500 euros.

2.– El importe destinado a las prórrogas será de 678.000 euros.

En el supuesto de que por el número de solicitudes de prórroga atendidas se produjera el agotamiento del referido importe, se deberá hacer pública esta circunstancia por la Directora de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo a los efectos de paralización de la concesión de nuevas prórrogas.

3.– Ambos importes, de convocatoria y de prórrogas, podrán ser modificados, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad en el BOPV mediante Resolución de la Directora de Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

En todo caso, el importe destinado a las prórrogas no podrá superar el 80% del importe total destinado a las nuevas ayudas.

***Artículo 3.–*** Subvención.

1.– La dotación básica de cada candidatura será de 15.000 euros.

2.– El complemento por nivel de vida de los países receptores se calculará teniendo en cuenta la escala de viáticos del PNUD de febrero de 2011 que estará disponible en la página web de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo www.elankidetza.euskadi.net, pudiendo asimismo facilitarse a quien lo solicite en dicha Agencia. Para aquellas candidaturas cuyo destino corresponda al baremo más alto en dicha escala, el importe del complemento será el máximo, esto es, 750 euros. El cálculo del resto de los destinos se hará de acuerdo a cada baremo y a la parte proporcional correspondiente al máximo, tomándose como límite excluyente para la compensación el de las ciudades de Bogotá (Colombia) o Islamabad (Pakistán).

3.– El importe destinado a los gastos derivados de la formación específica de la persona cooperante voluntaria en el ámbito de las agencias multilaterales impartida u organizada por las entidades solicitantes no podrá superar el 2% (300 euros) del importe básico de la ayuda concedida por cada candidatura. Asimismo, el importe destinado a los gastos derivados de la gestión de las entidades solicitantes para la

izandako gastuetarako diru-kopurua gehienez ere hautagaitza bakoitzari emandako laguntzaren oinarrizko zenbatekoaren % 1 izango da (150 euro).

***4. artikulua.***– Eskabideak aurkeztea.

Eranskinean jasota dagoen eredu normalizatuari jarraiki aurkeztuko dira eskabideak, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hilabeteko epean. Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira, honako leku honetara zuzenduta:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

Nafarroa kalea, 2

01007 Vitoria-Gasteiz

Eskabideak aurkezteko, otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuan ezarritako baldintza guztiak osorik eta berariaz onartu beharko dira.

***5. artikulua.***– Hautagaitzak aukeratzeko irizpideak eta horien haztapena.

Hautagaitzak aukeratzeko irizpideak eta horien haztapenak honako hauek izango dira:

1) Nazioarteko Erakundeak adierazitako lanari egokitzen zaion lanbide-profila eta dagokion titulazio akademikoa: 20 puntu, gehienez.

a) 10 puntu: adierazitako lana betetzeko titulazio egokia duela egiaztatzen badu.

b) 10 puntu: lanak eskatzen duen profilerako gutxienez urtebeteko esperientzia duela egiaztatzen badu.

2) Garapenerako lankidetzaren edo generoaren arloko prestakuntza espezifikoa: 20 puntu gehienez.

a) 15 puntu: master-ikastaroren bat edo antzekoren bat egin duela egiaztatzen badu.

b) 10 puntu: adituentzako ikastaroren bat edo antzekoren bat egin duela egiaztatzen badu.

c) 5 puntu gehienez: garapenerako lankidetzaren edo generoaren arloarekin loturiko ikastaro espezifikoak egin dituela egiaztatzen badu.

– 20 eta 40 ordu bitarteko ikastaroak: puntu 1 ikastaro bakoitzeko.

– 41 eta 60 ordu bitarteko ikastaroak: 2 puntu ikastaro bakoitzeko.

– 61 ordu edo gehiagoko ikastaroak: 4 puntu.

3) Lankidearen lana txertatzen deneko programen edo proiektuen eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziatik bultzatzen den lankidetzaren arteko lotura sinergikoa: 20 puntu gehienez.

pre-selección de las candidaturas y de la administración para el seguimiento de las becas no podrá superar el 1% (150 euros) del importe básico de la ayuda concedida por cada candidatura.

***Artículo 4.***– Presentación de solicitudes.

Las solicitudes deberán presentarse, según el modelo normalizado recogido en el anexo, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el BOPV, pudiendo presentarse en cualquiera de los modos previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, dirigiéndose a:

Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo

C/ Navarra, 2

01007 Vitoria-Gasteiz

La presentación de solicitudes supone la aceptación integra expresa de todas las condiciones contempladas en el Decreto 22/2007, de 13 de febrero.

***Artículo 5.***– Criterios de selección de las candidaturas y su ponderación.

Los criterios de selección de las candidaturas y su ponderación serán los siguientes:

1) Perfil profesional adecuado a la labor a desempeñar indicada por la oficina del Organismo Internacional, con su correspondiente titulación académica: hasta 20 puntos.

a) 10 puntos: si acredita titulación adecuada para la labor señalada.

b) 10 puntos: si acredita experiencia mínima de un año con el perfil que requiere la labor.

2) Formación específica en el ámbito de la cooperación al desarrollo o de género: hasta 20 puntos.

a) 15 puntos: si acredita haber realizado algún curso de master o similar.

b) 10 puntos: si acredita haber realizado algún curso de experto o similar.

c) hasta 5 puntos: si acredita haber realizado cursos específicos relacionados con el ámbito de la cooperación al desarrollo o de género.

– cursos de duración entre 20 y 40 horas: 1 punto por curso.

– cursos de duración entre 41 y 60 horas: 2 puntos por curso.

– cursos de duración igual o superior a 61 horas: 4 puntos.

3) Vinculación sinérgica de los programas o proyectos en los que se inserte la labor de la persona cooperante con la cooperación impulsada desde la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo: hasta 20 puntos.

a) 20 puntu: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak lankidetza-hitzarmena sinatu dueneko nazioarteko erakunderen bateko bulegoetan garatzen bada zeregina.

b) 10 puntu: honako jarduera-sektore hauetan kokatzen diren programa edo proiektuetan txertatzen bada zeregina: lehentasunezko gizarte-premiak, herri-ekonomia, tokiko agintea, giza eskubideak eta kultura-nortasuna.

4) Lankideak ekintza garatuko dueneko bulegoak eskatzen duen/dituen hizkuntza/k jakitea: 10 puntu gehienez.

a) 5 puntu: Hizkuntza Eskola Ofizialeko B1 mailaren baliokidea.

b) 8 puntu: Hizkuntza Eskola Ofizialeko B2 mailaren baliokidea.

c) 10 puntu: Hizkuntza Eskola Ofizialeko C1 mailaren baliokidea.

5) Euskal Autonomia Erkidegoko izaera sozial eta humanitarioko erakunde edo programei aktiboki lotuta egotea: 20 puntu gehienez.

a) 20 puntu: boluntariotzan edo lankidetzan 5 urte edo gehiagoko esperientzia egiaztatzen badu.

b) 10 puntu: boluntariotzan edo lankidetzan hiru urtetik bostera bitarteko esperientzia egiaztatzen badu.

c) 5 puntu gehienez: boluntariotzan edo lankidetzan hiru urte baino gutxiagoko eta gutxienez hiru hilabeteko esperientzia duela egiaztatzen badu.

6) Lankideak bere zeregina betetzen dueneko eremu geografikoa: 10 puntu proiektua honako herri hauetako batean gauzatzen bada: El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua, Mexiko, Brasil, Kuba, Bolivia, Kolonbia, Ekuador, Peru, Venezuela, Boli Kosta, Ruanda, Mozambike, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Angola, Palestina eta India.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Laguntza-programa honi buruz ebazpen honetan jasota ez dauden gainerako gaiei dagokienez, otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuan ezarritakoa bete beharko da. Dekretu horren bidez Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeei eta horiei atxikitako pertsona juridikoei esleitzen zaizkien laguntzak arautzen dira, hain zuzen ere nazioarteko erakunde horiek herrialde txirotuetan garatzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei bekak emateko.

a) 20 puntos: si la labor se desarrolla en oficinas de Organismos Internacionales con los que la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo haya suscrito algún convenio de colaboración.

b) 10 puntos: si la labor se inserta en programas o proyectos que se enmarquen en los sectores de actuación siguientes: necesidades sociales prioritarias, economía popular, poder local, derechos humanos e identidad cultural.

4) Conocimiento del/de los idioma/s requerido/s por la oficina en la que el/la cooperante desarrollará la acción: hasta 10 puntos.

a) 5 puntos: equivalente al nivel B1 de la Escuela Oficial de Idiomas.

b) 8 puntos: equivalente al nivel B2 de la Escuela Oficial de Idiomas.

c) 10 puntos: equivalente al nivel C1 de la Escuela Oficial de Idiomas.

5) Vinculación activa con organizaciones o programas de carácter social-humanitario en el País Vasco: hasta 20 puntos.

a) 20 puntos: si acredita experiencia de voluntariado o de cooperación durante 5 años o más.

b) 10 puntos: si acredita experiencia de voluntariado o de cooperación de tres a cinco años.

c) 5 puntos: si acredita experiencia de voluntariado o cooperación de menos de tres años, con un mínimo de tres meses.

6) Área geográfica en la que se desarrolla la labor de la persona cooperante: 10 puntos si la labor se desarrolla en El Salvador, Guatemala, Honduras, Nicaragua, México, Brasil, Cuba, Bolivia, Colombia, Ecuador, Perú y Venezuela; Costa de Marfil, Ruanda, Mozambique, República Árabe Saharaui Democrática, República Democrática del Congo, Angola, Palestina e India.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En relación al resto de cuestiones relativas al presente programa de ayudas no recogidas en la presente Resolución se estará a lo establecido en el Decreto 22/2007, de 13 de febrero, por el que se regulan las ayudas a Organismos Internacionales del sistema de las Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a ellos, para becar a los/as cooperantes voluntarios/as que participen en proyectos de desarrollo de dichos Organismos Internacionales en países empobrecidos.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Errekurtsoak.

Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du; hala ere, bere aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Lehendakaritzako idazkari nagusiari. Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean.

***Bigarrena***.– Indarrean sartzea.

EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ebazpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 11.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Recursos.

Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Secretario General de la Presidencia, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV, o recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la Resolución en el BOPV.

***Segunda***.– Entrada en vigor.

La presente Resolución entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de mayo de 2011.

El Secretario General de la Presidencia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

ERANSKINA

NAZIO BATUEN SISTEMAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEEI ETA HORIEI ATXIKITAKO PERTSONA JURIDIKOENTZAKO LAGUNTZAK JASOTZEKO ESKABIDEA, NAZIOARTEKO ERAKUNDE HORIEK HERRIALDE TXIROTUETAN GAUZATZEN DITUZTEN GARAPEN-PROIEKTUETAN PARTE HARTZEN DUTEN BORONDATEZKO LANKIDEEI BEKAK EMATEKO

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariari:

Erakunde eskatzailea:

Lankide boluntarioaren izena eta NANa:

Proiektuan noiz hasiko den lanean lankide boluntarioa:

Deialdia:

Erregistro-zenbakia:

Data:

Jarduera-arloa:

I.– INFORMAZIO OROKORRA:

1.– Proiektua aurkezteko datuak.

Proiektuaren izenburua (hamar hitz gehienez):

Herrialdea/eremu geografikoa:

Erakunde eskatzailea (izen ofiziala):

Helbidea/erakundearen egoitza:

Telefonoa / Faxa:

Posta elektronikoa:

IFZ:

Eratze-data:

Izaera juridikoa:

Kontu-zenbakia eta banku-datuak:

Pertsona ahalduna eta kargua:

Eskaeraren ardura bere gain hartzen duela adierazteko sinadura:

Harremanetarako pertsona:

2.– Iraupena:

Aurreikusitako hasiera-data:

Aurreikusitako amaiera-data:

Gauzatzeko aldia, guztira (hilabeteak):

3.– Finantziazioa:

Eusko Jaurlaritzari eskatutako diru-laguntza:

II.– HAUTAGAITZARI BURUZKO INFORMAZIOA.

1.– Proiektuaren eta jardueren deskribapen zehatza (deskribatu proiektuaren edukia 25-50 lerrotan, datu garrantzitsuenak adierazita).

| |
|---|
| |

2.– Lankide boluntarioak proiektuan garatuko dituen zereginen eta txertatuko den organigramaren deskribapen zehatza.

2.1.– Lankide boluntarioak bete beharreko zereginak:

| |
|---|
| |

2.2.– Zein organigramatan txertatuko den lankide boluntarioa.

| |
|---|
| |

3.– Kokapen zehatza:

4.– Lortu nahi diren emaitzak (deskribatu, 10-20 lerrotan, lankide boluntarioari eta proiektuari dagokienez lortu nahi diren emaitzak):

4.1.– Lortu nahi diren emaitzak.

| |
|---|
| |

4.2.– Emaitzen lorpen-mailaren adierazleak:

| |
|---|
| |

4.3.– Adierazleak egiaztatzeko iturriak:

| |
|---|
| |

5.– Proiekturako behar den lankidearen profila, egokitzat jotzen den titulazioa adierazita:

| |
|---|
| |

6.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak herrialde hartzailean bultzatzen duen gainerako lankidetza-rekiko balizko sinergiak:

| |
|---|
| |

7.– Proiektuaren aurrekontua eta finantzaketa:

| partidak | Zenbatekoa |
|---|---|
| Lankidearen ordain-saria | |
| Aseguru-gastuak | |
| Helbide-herrialdera joateko lankideak izango dituen garraio-gastuak | |
| Bizi-mailagatiko osagarria | |
| Prestakuntza- eta kudeaketa-gastuak | |
| Guztira | |

III.– LANKIDEAREN CURRICULUM VITAE

I.– Informazio orokorra.

Izen-abizenak ......................................................................................................................................

NAN: .......................................................................................... Jaiotza-data: ..........................................

Helbidea: .................................................................................... Herria: ..........................................

Probintzia: ..........................................................................................PK: ..........................................

Telefonoa: ......................................................................................... Faxa: ..........................................

Posta elektronikoa: ................................................................................................................................

2.– Informazio akademikoa.

2.1.– Titulazio akademikoa:

Lizentzia (zehaztu): ...............................................................................................................................

Zentroa: ..............................................................................................................................................

Ikasketak amaitu direneko data: ............................................................................................................

Ikasketa-ziurtagiriko kalifikazioa: ..........................................................................................................

2.2.– Graduondoko ikastaroak:

Titulua: ..............................................................................................................................................

Zentroa: ..............................................................................................................................................

Iraupena: ........................................................................ Lortutako kalifikazioa: ..........................................

Titulua: ..............................................................................................................................................

Zentroa: ..............................................................................................................................................

Iraupena: ........................................................................ Lortutako kalifikazioa: ..........................................

2.3.– Bestelako ikasketak edo ikastaroak:

Titulua: ..............................................................................................................................................

Zentroa: ..............................................................................................................................................

Iraupena: ........................................................................ Lortutako kalifikazioa: ..........................................

Titulua: ..............................................................................................................................................

Zentroa: ..............................................................................................................................................

Iraupena: ........................................................................ Lortutako kalifikazioa: ..........................................

3.– Hizkuntzak:

Lankideak bere lana burutuko duen eskualdean erabiltzen den/diren hizkuntza/k.

Lankideak egiaztatutako hizkuntzak:

| Egiaztatutako hizkuntza | Maila |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |

4.– Jarduera profesionala:

4.1.– Jasotako bekak eta laguntzak:

| Erakundea | Bekaren izena | Hasiera-data | Iraupena |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

4.2.– Lan-esperientzia:

| |
|---|
| |

5.– Egindako lanak eta argitalpenak:

Titulua: ..............................................................................................................................................

Non argitaratu den: .................................................................. Data: ..........................................................

Titulua: ..............................................................................................................................................

Non argitaratu den: .................................................................. Data: ..........................................................

Titulua: ..............................................................................................................................................

Non argitaratu den: .................................................................. Data: ..........................................................

6.– Beste datu interesgarri batzuk:

ANEXO

SOLICITUD DE AYUDAS A ORGANISMOS INTERNACIONALES DEL SISTEMA DE LAS NACIONES UNIDAS Y A PERSONAS JURÍDICAS VINCULADAS A ELLOS, PARA BECAR A LAS PERSONAS COOPERANTES VOLUNTARIAS QUE PARTICIPEN EN PROYECTOS DE DESARROLLO DE DICHOS ORGANISMOS INTERNACIONALES EN PAÍSES EMPOBRECIDOS

A la atención de la Directora de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo:

Entidad solicitante:

Nombre y DNI de la persona cooperante voluntaria:

Fecha de incorporación de la persona cooperante al Proyecto:

Convocatoria:

N.º de registro:

Fecha:

Sector de actuación:

I.– INFORMACIÓN GENERAL:

1.– Datos de presentación del proyecto:

Título del proyecto (en diez palabras máximo):

País/Área geográfica:

Entidad solicitante (nombre oficial):

Dirección/Sede social:

Teléfono / Fax:

Correo electrónico:

NIF:

Fecha de constitución:

Naturaleza jurídica:

N.º de cuenta y datos bancarios:

Persona apoderada y cargo:

Firma asumiendo la responsabilidad en la solicitud:

Persona de contacto:

2.– Duración:

Fecha prevista de inicio:

Fecha prevista de finalización:

Periodo total de ejecución (en meses):

3.– Financiación:

Subvención solicitada al Gobierno Vasco:

II.– INFORMACIÓN SOBRE LA CANDIDATURA:

1.– Descripción detallada del proyecto y actividades (describir en 25-50 líneas el contenido del proyecto con los datos más relevantes):

| |
|---|
| |

2.– Descripción detallada de las funciones a desarrollar por la persona cooperante en el proyecto y el organigrama en el que se integrará:

2.1.– Funciones a desarrollar por la persona cooperante voluntaria:

| |
|---|
| |

2.2.– Organigrama en que se integrará la persona cooperante voluntaria

| |
|---|
| |

3.– Localización detallada:

4.– Resultados esperados (describir en 10-20 líneas los resultados esperados para la persona cooperante y para el proyecto):

4.1.– Resultados esperados:

| |
|---|
| |

4.2.– Indicadores del grado de consecución de los resultados:

| |
|---|
| |

4.3.– Fuentes de verificación de los indicadores:

| |
|---|
| |

5.– Perfil de la persona cooperante que se precisa para el proyecto con indicación de la titulación que se considera adecuada:

| |
|---|
| |

6.– Posibles sinergias con el resto de cooperación que apoya la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo en el país receptor:

| |
|---|
| |

7.– Presupuesto y financiación del proyecto:

| *Partidas* | *Importe* |
|---|---|
| *Compensación económica al/a la cooperante* | |
| *Gastos de seguros* | |
| *Gastos de transporte del/de la cooperante al país de destino* | |
| *Complemento por nivel de vida* | |
| *Gastos de formación y de gestión* | |
| *Total* | |

III.– CURRICULUM VITAE DE LA PERSONA COOPERANTE

1.– Información general:

Nombre y Apellidos: ..........................................................

DNI: .......................... Fecha de nacimiento: ..........................

Dirección: .......................... Localidad: ..........................

Provincia: .......................... CP: ..........................

Teléfono: .......................... Fax: ..........................

Correo electrónico: ..........................................................

2.– Información académica:

2.1.– Titulación académica:

Licenciado o licenciada en (especificar): ..........................

Centro: ..........................................................

Fecha de terminación de los estudios: ..........................

Calificación del certificado académico: ..........................

2.2.– Cursos de postgrado realizados:

Título: ..........................................................

Centro: ..........................................................

Duración: .......................... Calificación obtenida: ..........................

Título: ..........................................................

Centro: ..........................................................

Duración: .......................... Calificación obtenida: ..........................

2.3.– Otros estudios o cursos:

Título: ..........................................................

Centro: ..........................................................

Duración: .......................... Calificación obtenida: ..........................

Título: ..........................................................

Centro: ..........................................................

Duración: .......................... Calificación obtenida: ..........................

3.– Idiomas:

Idioma/s utilizado/s en la zona en la que la persona cooperante desarrollará la acción.

Idioma/s acreditado/s por la persona cooperante:

| *Idioma acreditado* | *Nivel* |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |

4.– Trayectoria profesional:

4.1.– Becas y ayudas disfrutadas:

| *Entidad* | *Denominación de la beca* | *Fecha de inicio* | *Duración* |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

4.2.– Experiencia laboral:

| |
|---|
| |

5.– Trabajos y publicaciones realizados:

Título: ..........................................................................................................................................

Publicado en: ........................................................................ Fecha: ........................................................

Título: ..........................................................................................................................................

Publicado en: ........................................................................ Fecha: ........................................................

Título: ..........................................................................................................................................

Publicado en: ........................................................................ Fecha: ........................................................

6.– Otros datos de interés:

IV.– AURKEZTU BEHARREKO AGIRI OSAGARRIAK

1.– Batzorde nazionalei eta/edo autonomikoei buruzko dokumentazioa/informazioa (informazio hau behin bakarrik erantsiko da, deialdian aurkezturiko proiektuen kopurua edozein izanik ere):

a) Honako fotokopia konpultsatu hauek: erakundearen estatutuena, dagokion erregistroan izena ematearena eta eskabidea izenpetzen duenaren ahalordetzearena (erakunde eskatzailea lehen aldiz aurkezten bada, edota aurreko urteetan aurkeztutako dokumentazioarekiko aldaketarik izan bada).

b) Erakundearen organigrama. EAEko langile ordainduak eta ordaindu gabeak. Langile boluntarioak edo laguntzaileak, bazkide-kopurua, boluntarioak, laguntzaileak edo erakundeko kideak.

c) Identifikazio fiskaleko zenbakiaren (IFZ) txartelaren fotokopia.

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela adieraziko duen ziurtagiria.

e) Tokiko bulegoek hautagaitza bakoitzarentzat eta eskatutako hautagaitza-profil bakoitzarentzat idatzitako erreferentziazko baldintzak aurkeztea, ahalik eta modu zehatzenean.

f) Egindako aurretiazko aukeraketa-prozesua zehazten duen txostena. Txosten horrek honako hauek zehaztuko ditu gutxienez: deialdiaren berri emateko erabili den sistema, programan parte hartzea eskatu dutenen kopurua eta horien prestakuntza-eta lanbidearloko profila, eta erabili den hautaketa-sistema.

g) Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukerak galtzea dakarren zehapen penalik edo administratiborik ez izatea (sexu bazterkeriagatik jarritako zehapenak barne) –dagokion zehapenean ezarritako epean– eta laguntzak jasotzeko ezgaituko lukeen inolako lege-debekuren eraginpean ez izatea adieraziko duen zinpeko edo erantzukizunezko aitorpena.

h) Emango diren prestakuntza-moduluen memoria eta modulu horiek emango dituzten hizlariak.

2.– Pertsona juridikoei buruzko dokumentazioa/informazioa (informazio hau behin bakarrik erantsiko da, deialdian aurkezturiko proiektuen kopurua edozein izanik ere):

Aurreko idatzi-zatian adierazitakoez gain, Nazio Batuen Batzorde Nazional edo Autonomikoarekin egindako akordio, hitzarmen edota protokoloak behar bezala egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da. Batzorde horren bitartez gauzatu beharko da nahitaez lankide boluntarioa txertatzen deneko proiektua.

IV.– DOCUMENTACIÓN COMPLEMENTARIA QUE HA DE APORTARSE

1.– Documentación / información de los Comités Nacionales y/o Autonómicos (esta información se adjuntará una sola vez independientemente del número de proyectos presentados en la convocatoria):

a) Fotocopia compulsada de estatutos y de la inscripción en el Registro correspondiente, así como del apoderamiento de la persona que firma la solicitud (en caso de ser la primera vez que se presenta o si hay cambios respecto a la documentación aportada en años anteriores).

b) Organigrama de la organización. Personal remunerado y sin remunerar en la CAPV. Personal voluntario o colaborador, número de socias o socios, voluntarias o voluntarios, personal colaborador o miembros de la organización.

c) Fotocopia de la tarjeta del NIF.

d) Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

e) Presentación de los términos de referencia redactados por las oficinas en terreno para cada candidatura y perfil de candidatura solicitada, lo más detallada posible.

f) Presentación de un informe que detalle el proceso de preselección realizado. Este informe concretará, al menos, sistema utilizado para dar a conocer la convocatoria, número de personas que solicitan participar en el programa y su perfil formativo-profesional; sistema de selección utilizado.

g) Declaración jurada o responsable de no haber sido sancionado penal o administrativamente -durante el período que establezca la correspondiente sanción- con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas, incluidas las sanciones por incurrir en discriminación por razón de sexo, ni hallarse incurso/a en prohibición legal alguna que inhabilite para ello.

h) Memoria de los módulos de formación que se impartirán y sus ponentes.

2.– Documentación / información de las personas jurídicas (esta información se adjuntará una sola vez independientemente del número de proyectos presentados en la convocatoria):

Además de las señaladas en el apartado anterior, habrá que aportar prueba documental suficiente relativa a sus acuerdos, convenios y/o protocolos con el correspondiente Comité Nacional y/o Autonómico de Naciones Unidas, a través del cual deberá realizarse necesariamente el proyecto en el que se inserta la persona cooperante voluntaria.

3.– Lankide boluntarioaren dokumentazioa/informazioa:

a) 2011ko urtarrilaren 1ean gutxienez 12 hilabeteko antzinatasuneko administrazio-herrikidetasuna duela frogatzen duen errolda-ziurtagiria. Baldintza hori ezin bada bete pertsona hori herrialde txirotuetan lankidetza lanak egiten egoteagatik, egoera hori frogatzen duen eta lan horiek egitera joan baino lehen EAEn administrazio-herrikidetasuna gutxienez urte betez izan duela frogatzen duen dokumentua aurkeztu beharko ditu.

b) Lankidearen argazkia, nortasun-agiriaren neurrikoa.

c) Lankidearen NANaren fotokopia.

d) Curriculum vitae egiaztatzea. Titulazioa egiaztatzeko, honako dokumentu hauetakoren baten fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da: 1) titulua, edo 2) titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria, edo 3) ikasketa-espedienteko nota, titulazioari dagokion proba orokorra gainditu izana eta titulua lortzeko eskubideak ordaindu izana adierazten duela.

e) Homologazio-eskaeraren ebazpenaren zain daudenek edo eskaera hori egin ez dutenek baina urtarrilaren 16ko 86/1987 Errege Dekretuaren 16.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki atzerriko titulua homologatu gabe titulu horrekin espainiar unibertsitateetako graduondoko ikasketetan sartu direnek –ikasketa horiek egiteko aurretik bete beharreko baldintza bigarren zikloko ikasketen baliokidea den unibertsitate titulua izatea baita (lizentziatua, ingeniaria edo arkitektoa)– ziurtatzeko dokumentu gisa ateratako titulua aurkeztu ahal izango dute programa horiek egin zituzten unibertsitateko erretorearen baimenarekin edo haren matrikulazioa berariaz baimendu zuen doktoretzabatzordearen irizpenaren kopiarekin batera, aurkezten den titulua eta atzerriko ikasketa-espedientea egin beharreko espezializazio-ikasketen eskakizunekin bat datorrela aldez aurretik egiaztatu ondoren.

f) Hizkuntzen ezaguera eta egindako ikastaroak egiaztatzen dituzten dokumentuak.

g) Garapen-lankidetzan edota genero arloan prestakuntza bereziaren jabetza egiaztatzen duten dokumentuak.

h) Erakundearen ziurtagiria, eskatzailearen eta horren zereginaren arteko lotura egiaztatzen duena.

4.– Otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuko 5.2.a) artikuluan adierazitako idatzi-zatiak biltzen dituen erakunde eskatzailearen eta bekadunaren artean izenpetutako hitzarmenaren dokumentua.

5.– Lankide boluntarioaren lana garatuko den Nazioarteko Erakundearen bulegoaren eta erakunde eskatzailearen artean izenpetutako hitzarmenaren doku-

3.– Documentación/Información de la persona cooperante voluntaria:

a) Certificado de empadronamiento que acredite la vecindad administrativa con una antigüedad superior a 12 meses al 1 de enero de 2011. En el caso de que este requisito no pudiera ser satisfecho por razón de que la persona se hubiera encontrado haciendo labores de cooperante en países empobrecidos, deberá presentar documento que acredite este extremo y documento acreditativo de la vecindad administrativa en la CAV anterior a dicho periodo durante un período continuado no inferior a un año.

b) Fotografía tamaño carnet de la persona cooperante.

c) Fotocopia del DNI de la persona cooperante.

d) Acreditación del curriculum vitae. La titulación se acreditará mediante fotocopia compulsada de alguno de los siguientes documentos: 1) título, o 2) documento justificativo de haber abonado los derechos para la expedición del mismo, o 3) la nota reflejada en el expediente académico indicativa de haber superado la prueba de conjunto de la titulación correspondiente y de haber abonado los derechos para la obtención de la misma.

e) Quienes estuvieren pendientes de la resolución de su solicitud de homologación o no la hayan realizado, pero hubieran accedido con su Título extranjero en conformidad con el artículo 16.1 del Real Decreto 86/1987, de 16 de enero, sin necesidad de homologación del mismo, a estudios de postgrado de las Universidades españolas, cuyo requisito previo es disponer de una titulación universitaria correspondiente a un segundo ciclo (Licenciado/a, Ingeniero/a o Arquitecto/a), deben presentar como documento acreditativo el título obtenido junto con la autorización otorgada por el Rector de la Universidad donde realizaron dichos programas, o la copia del dictamen de la comisión de Doctorado en el que se autorizó expresamente su matriculación, previa comprobación de la adecuación del título y expediente académico extranjero presentado a la exigencia de los estudios de especialización a realizar.

f) Documentación que acredite el conocimiento de idiomas y de los cursos realizados.

g) Documentación que acredite la formación específica en el ámbito de la cooperación al desarrollo y/o género.

h) Certificado de la organización que acredite la vinculación de la persona solicitante y su labor.

4.– Documento del convenio suscrito entre la entidad solicitante y el becario o becaria que recoja los apartados señalados en el artículo 5.2.a) del Decreto 22/2007, de 13 de febrero.

5.– Documento del convenio suscrito entre la oficina del Organismo Internacional en el que se desarrollará la labor de la persona cooperante voluntaria

mentua. Dokumentu horretan gutxienez honako hau zehaztuko da: lankideari lana behar bezala egiteko beharrezko baldintza materialak eta teknikoak emateko konpromisoa lana garatuko deneko bulegoaren aldetik, baita oporrak eta barne-prestakuntza emateko konpromisoa ere.

6.– Emango diren prestakuntza-moduluak eta modulu horiek emango dituzten irakasleak.

V.– DATU PERTSONALEN BABESA.

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, jakinarazten dizugu eskabidea betez eman dizkiguzun datuak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren fitxategi automatizatu batean sartuko direla, izapidetze-lanak egiteko.

Hala nahi dutenek, Legean aurreikusitako eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian (Nafarroa kalea 2, 01007 Vitoria-Gasteiz).

y la entidad solicitante en la que conste, al menos, el compromiso de la oficina en la que se desarrollará la labor de la persona cooperante a proveerla de las condiciones materiales y técnicas necesarios para el correcto desempeño de su labor y de otras condiciones tales como vacaciones y formación interna, así como sus obligaciones.

6.– Los módulos de formación a impartir y los ponentes que los van a impartir.

V.– PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de la solicitud serán incorporados para su tramitación a un fichero automatizado de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

Las personas interesadas podrán ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, ante la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, calle Navarra, 2; 01007 Vitoria-Gasteiz.